Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko uztailaren 22a, asteartea — 139 — Martes, a 22 de julio de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Lehiakortasun-progama dirulaguntzaren deialdia. BDNS (Identif.): 846292.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/846292).

*Lehiakortasun programarako dirulaguntzaren oinarriak eta deialdia.*

1. *Onuradunak.*

Hauek izan daitezke dirulaguntza hauen onuradunak:

Pertsona edo entitate onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak (norbere kontura aritzen diren langileak edo autonomoak), pertsona juridikoak (edozein dutela ere izaera juridikoa) eta ondasun-erkidegoak, oinarri hauetan eta dagokien deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2. *Xedea.*

Oinarri hauen xedea da arautzea Tolosako udalerrian eta Apattaerrekan kokatuta egon, eta gehienez 50 langile dituzten enpresei dirulaguntzak lehia bidezko konkurrentziaren arabera emateko modua. Dirulaguntzak garapen esperimentalei, prototipoen ekintzei eta soluzio edo zerbitzu berritzaileei bultzada ematen dieten proiektuak, eta horien balioztapena egiteko izango dira.

3. *2025. urteko oinarri arautzaileak eta deialdia.*

Estitxu Kortejarena Ugarte, Garapen ekonomikoa eta Enplegu-sustapen Azpisaileko zinegotzi delegatuak, 2025eko uztailaren 14an, 2025/1915 Dekretuaren bidez, erabaki zuen onartzea ebazpenean jasotzen diren dirulaguntzak ematea arautzen duten 2025. urteko oinarri arautzaileak eta deialdia.

Informazio zehatza interesdunen eskura dago Udalaren webgunean: https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=EU071122951.

4. *Zenbatekoa.*

Deialdi honetan emateko dirulaguntzaren zenbateko osoa da: Hamabost mila euro (15.000 €), 1100.481.01.430.00 Tolosako Udalaren 2025eko Aurrekontu Orokorren partidaren kargura.

5. *Eskaerak aurkezteko epea.*

Eskaerak aurkezteko epea, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta irailak 20an amaituko da.

Tolosa, 2025eko uztailaren 14a.—Estitxu Kortejarena Ugarte, Garapen Ekonomikoa eta Enplegu-sustapen Azpisaileko zinegotzi delegatua. (5370)

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Convocatoria para la concesión de subvenciones para el Programa de Competitividad. BDNS (Identif.): 846292.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/846292).

*Convocatoria y bases para la subvención del programa de competitividad.*

1. *Beneficiarios/as.*

Podrán ser personas beneficiarias de estas subvenciones:

Podrán obtener la condición de persona o entidad beneficiaria las personas físicas (las personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas), las personas jurídicas (cualquiera que sea su naturaleza jurídica) y las comunidades de bienes, que cumplan con los requisitos establecidos.

2. *Objeto.*

Las presentes bases tienen por objeto regular la concesión de las subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, a empresas de hasta 50 trabajadores ubicadas en el municipio de Tolosa y en Apattaerreka, para proyectos que promuevan el desarrollo experimental, la acción de prototipos y la realización de soluciones y/o servicios innovadores, así como su validación.

3. *Bases reguladoras del año 2025 y la convocatoria.*

Estitxu Kortejarena Ugarte, concejala delegada de la Subárea de Desarrollo Económico y Empleo, mediante Decreto 2025/1915, de 14 de julio de 2025, acordó aprobar las bases reguladoras del año 2025 y la convocatoria que regulan la concesión de las subvenciones contempladas en la resolución.

La información detallada se encuentra a disposición de las personas interesadas en la página web del Ayuntamiento: https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?De=CA071122951.

4. *Cuantía.*

El importe total de la subvención a conceder en esta convocatoria es de: quince mil euros (15.000 €) con cargo a la partida 1100.481.01.430.00 de los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Tolosa de 2025.

5. *Plazo de presentación de solicitudes.*

El plazo de presentación de solicitudes empezará a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y estará abierto hasta el 20 de septiembre.

Tolosa, a 14 de julio de 2025.—La concejala delegada de la Subárea de Desarrollo Económico y Empleo, Estitxu Kortejarena Ugarte. (5370)

EK\CV GAO-I-2025-05370